

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ELTZIEGOKO UDALA

#### Alkateordeak izendatzeko 89/1019 Dekretua argitaratzea

Eltziegoko hiribilduan, Arabako Lurralde Historikoan, 2019ko ekainaren 18ko 14:00etan, Luís Aldazabal Ruiz de Viñaspre udal honetako alkate-lehendakaria eta Izaskun García Zorzano idazkaria bildu dira.

Apirilaren 1eko 209/2019 Errege Dekretuaren bidez hauteskundeak deitu ziren, 2019ko maiatzaren 26an hauteskundeak egin ziren, eta Eltziegoko udal berria eratu eta gero, udalaren antolaketa berria ezarri behar da, alkateordeen izendapena bereziki.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak emandako idazketaren arabera, eta Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 27. artikuluari jarraituz, alkatetzaren eskumena da alkateordeak izendatzea. Dekretu bidez izendatu beharko ditu, zinegotzien artean.

Eltziegoko Udaleko alkateak ebazpen hau hartu du.

Lehenengoa. Eltziegoko Udaleko alkateorde izaendatzea, gaurko egunetik aurrera, hurrenkera honetan, zerrendatutako zinegotzi hauek. Lehen alkateordeak alkatea ordeztuko du kargua hutsik dagoenean edo alkatea ez dagoenean edo gaixo dagoenean.

Lehen alkateorde Juan Carlos Uribe Rueda

Bigarren alkateorde Ángel Cornes Lozano

Bigarrena. Alkate kargua hutsik badago edo alkatea ez badago edo gaixorik badago, indarrean dagoen legediak alkateari aitortzen dizkion ahalmen eta eskumenak, alkateordeen eskumen izango dira, hurrenkera honetan:

Lehen alkateorde Juan Carlos Uribe Rueda

Bigarren alkateorde Ángel Cornes Lozano

Gainera, bilkuraren batean alkateak ezin badu parte hartu apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 76. artikuluan ezarritako arrazoiren batengatik, automatikoki ordezkatzeko dute alkatea, izendapen hurrenkerari jarraituz.

Hirugarrena. Alkatea udalerritik kanpo dagoenean, dekretuz ezarriko da absentiaren iraupena eta zein alkateordek hartuko dituen alkatearen eskumenak.

Laugarrena. Eragindako alkateordeei dekretu honen berri ematea, eta jakinaraztea, alkateak jakin egin behar duela nola baliatu dituen eskuordetutako ahalmenak. Ezin izango du alkateak jada eskuordetutako eginkizunik aldatu, ez eta eginkizun berririk eman ere.

Bosgarrena. Udalaren osoko bilkurari ebazpen honen berri ematea, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Arautegiaren 38. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Seigarrena. Izendapenen iragarkia ALHAOra bidaltzea eta udalaren ediktu taulan jartzea; dena den, ebazpen honen egunetik bertatik izango du eragina.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Eltziego, 2019ko ekainaren 18a

*Alkatea*

*LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRES*